

ELKARgo

Bezeroekin harremanetan jartzeko komunikazio-kanal egokiena Internet dela erabaki genuen, web-orri baten bidez. Bezeroek galdera edo zalantzarik badaukate, aplikazioan bertan atal bat izango dute hauek komunikatzeko. Horretaz gain, telefono zenbaki bat ere jarriko dugu bezeroen eskura, pantailaren bidez argitu ezin diren gauza garrantzitsuez edo zalantzez hitz egin ahal izateko. Ez dugu salmenta-kanalik, gure aplikazioan ez baitugu salmentarik eskainiko, eta, beraz, ez da inolako banaketarik egongo. Eskainiko dugun arreta bakarra informatiboa izango da.